

Urria 2023

INFO

Ikastolak



IKASTOLEK % 0,5 LANSARI IGOERA APLIKATUKO DUTE, ALDEBAKARREZ

Azarotik aurrera eta atzerabegirakoz. Gure eskaeretatik oso urruti egoten jarraitzen du.

☐ www.lab.eus
666774912 Araba
674137908 Bizkaia
666779156 Gipuzkoa

Urriaren 26an izandako Lan Hitzarmen Mahaian, Ikastolen Elkarteak eta EIB-ek % 0,5eko soldata igoera aplikatuko dute oinarrizko soldatan eta antzintasunean kategoria guztietan.

Administrazioak bere langileei ezarri dien soldata igoera berbera aplikatuko da Ikastoletako langileen zat ere. Igoera hau Azaroan gauzatuko da, baina urtarriletik atzera eraginkortasuna izango du.

Lansari igoera hau, LABek aldarrikatzen duen eros ahalmenaren mantentzetik eta sare publikoko langileekiko homologaziotik oso urrun egoten jarraitzen du.

Urtea baino gehiago pasa da Hitzarmen berria negoziatzeko mahaiak deituak izan zirenetik. Zoritxarrez ez da egon inongo aurrera pausurik edukien inguruan. LABek beti adierazi du, negoziatzeko eta adostasunetara heltzeko duen borondatea eta bide horretan pausoak eman nahi ditu. Horregatik Ikastolen Elkarteari eta EIBri, benetako edukiz jantzitako Lan Hitzarmen Mahaia hurrengo asteetan biltzea exijitzen die. Hau horrela izan ezean, ikastoletako langileak mobilizatzeraz deituko ditu sindikatuak.



Banatu ez eraldatu!

